

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

“Zure ongizatea gure ardura da.”

Gazteak sozietatearen motorra dira, munduak ez dauka etorkizunik haien osasun mentala ona ez bada. Pandemia dela eta, gazteen osasun mentala larriagotzen joan da. Estresa, antsietatea eta depresioa areagotu dira, eta gizakiarentzat ez dago ongizate fisiko zein mentala baino ezinbesteko sentsaziorik. Horregatik, gure enpresak, Higia & Noûs, laguntza psikologikoa eskaintzen du, beste askoren artean, pertsonen ongizatea bermatzeko gure aplikazio berriarekin: HiNoApp.

Gure helburua gazteentzako zerbitzu psikologiko eskuragarriagoak egitea da, baita zerbitzu berritzaileagoak eskaintzea ere. Aplikazioaren funtzionamendua erraza izango da, ez dago arrisku posiblerik. Praktikoa, interaktiboa eta baliabidez josita dagoena da. Aplikazioak psikologoarekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, online zein aurrez aurreko hitzordua hartzeko aukera, alegia. Eta bezeroek, euskaraz egiteko sesioak eta aplikazioa euskaraz izateko aukera izango dute. Gainera, osasun mentalari buruzko hainbat aholku eta informazio jasotzen du, tips eta jokoak barne, adituek garatuta. Premiun zerbitzuak eskaintzen duen abantaila da burmuinaren eta gorputzaren grafikak eta argazkiak dauden atal batzuk daudela, non ikus dezaketen zer gertatzen den gorputzean arazo bat baldin badago. Aplikazioan joku eta meditazio atal bat ere egongo da, non erabiltzaileak erlaxatu daitezke eta, adibidez, antsietatea duten pertsonentzat oso lagungarria izan daiteke.

Halaber, aplikazioak bezeroen osasunaren jarraipena egiteko atal bat ere badu, egun bakoitzeko egutegi bat eta oharren atal bat (psikologoaren esku dagoena) erabiliz. Interesak, (gustu musikalak, kirolak, gustoko janariak...) iritziak (politika, ekonomia, aurreiritziak...) kontuan hartzen dira eta baloreak (erlijioa, sinesmenak, tradizioak...) ateratzen dira. Horrela, bezeroaren estatu mentalari sakonki erreparatuko eta ikertuko diogu.

Hainbat topaketa antolatuko ditugu ere landa etxeetan, elkarbizitza hobetu eta laguntzea baitugu helburu, gazteek hautatutako helmugak kontutan hartuz. Antzeko arazo psikologikoak dituzten pertsonak elkarrekin etortzera animatuko ditugu, antzeko egoira bizi duten beste pertsonak ezagutzeko eta ikuspuntu ezberdinak partekatzeko.

Bezeroak lasaitasun mentala lortzeko bidean bakarrik egon nahi ez badu, irteera, tailer eta ekintza desberdinak antolatzen ditugu pertsonen arteko harremanak entretenimendu, laguntza eta terapia bezala erabiliz.

Gure psikologoa espezializatuta dago beharrezkoak izan daitezkeen arlo guztietan, eta gazteen ongizatera kalitatez bideratzea da haien proposamen bakarra, arreta psikologikoaren zerbitzuak hobetzeaz gain. Bezeroei egokitzea bilatzen dugu, eta

hala sendatze prozesua eramangarriagoa eta errazagoa egiteko era seguru batean, profesionaltasun osoz. Esklusibitasuna eskaintzen dugu.

Laburbilduz, Higia & Noûs, gazteen erosotasun eta eskuragarritasunean oinarritzen da. Laguntza, eskaintza eta osasun mentalaren bertsiorik onena lortzeko asmotan, bezeroarekin harreman zuzena zein birtuala erabiliko dugu. Berria den zerbait nahi dugu, merkeagoa, eskuragarriagoa, kalitate handiagokoa eta dinamikoagoa.

